

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Nabarniz

Aurkibidea

Udalerria: Nabarniz

Sarrera



Busturialdea eskualdeko udalerria da Nabarniz, Iluntzar mendiaren magalean dagoena. Arratzu, Ereño, Kortezubi, Aulesti, Mendata eta Ispaster ditu mugakide. Sei auzok osatzen dute herria: Ikazurieta, Intxaurrea, Uribarri-Zabaleta, Elexalde, Merika eta Lekerika. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiatetik bizi zen herria izanik, industrializazio prozesuaren eraginez, baserriak hustuz joan ziren eta auzokide gazteenek inguruko herri handietara migratu zuten bizimodu hobe baten bila.

- **Biztanleak:** 236
- **Euskaldunak:** %98,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **24**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **24**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Sabino Beaskoetxea Gabika-Aldekoa *Nabarniz* (1947)



Nabarnizen jaio zen 1947an. Lau anai-arrebatan bigarrena, gurasoak ere nabarniztarrak zituen. Gaztetan Ameriketara joan zen. Lehenbizi Rock Springs-en (Wyoming) egin zituen hiru urte eta gero Boiserara joan zen. Hasieran ganaduariekin ibili zen lanean; gerora basoetan, pinuak botatzen, eta, azkenik, 30 urte errepideak egiten pasa zituen. Emaztea Boisekoa bertakoa zuen. [Jose Manuel Iturburu](#) rekin batera egin zitzaion elkarriketa Boiseko Euskal Etxean.

Julian Bollar

Isaac Urtubi Gerrikagoitia (1921-2015)



Intxaurraga auzoko Larrinaga "Larriña" baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa da Isaac. Gurasoak ere auzokoak zituen, bere aita "Rubio" tratulari ezaguna zen. Umetan, 14 urtetara arte, ahal zenean joan zen eskolara. Baserrian beti izaten zuen behar piloa eta laiaketan, karea egiten eta ikazkintzan ere aritu zen, besteak beste. Ezkondu ostean, hamabi urtez Australiara joan zen azukre-kanaberatan lan egiteko. Gero, Beyena enpresan esne-saltzaile eta pentsu-saltzaile ere ibili zen. Ehiztari trebea ere bada, 15 urte gaz hasi baitzen ehizan eta Euskal Herrian bertan zein kanpoan ibil izan da. Emaztea Ereñoko Gabika auzokoa du.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. 33 egun itsasontzian eta bat trenean

- **Hizlaria(k):** Urtubi Gerrikagoitia, Isaac
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** NAB-001/006
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
 - Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- **Laburpena:** Australiarako bidaia: 33 egun itsasontzian eta trenean egun bat. Sidneyra joan ziren, eta han hartu zuten trena. Gizontxo bat joan zitzaien bila; ingelesez hasi zitzaien, baina euskalduna zen. Zikloiak apurtutako kanabera artean hasi ziren lanean.

Transkripzioa

Baie Australiara bakizu zemat egun ein gendun? Hogeta hamahiru egun barkun. Bai, holako barku txiki bet [de kargea y] descarga eitten eban herridxetan, geratute. Bueno, pentseten gendun sekule ez gara [iguel] Australiara. Egon, bueno, itxosuen sekulen ibil barik, [han uretan], bueno, bueno! Batin e, barku txatxarra, txikidxe, ta gomittuke jentie guztidxe, errementetan ta, bueno, pasau genduzen han be, hogeta hamahiru egun ein genduzen. Trenien, gero, egun bat ein gendun geure destinure. Han, hortik Sidney, Sidneyra, herri haundidxe da Sidney, Australiako handidxena Sidney da. Kapitala Gamberra da baia Sidneyn geratu giñen, ta Sidneytik trenien. Egun bat han be, juten; ta murik ez gendun jakin ingles. Etor jakun geure bille etor zana gizontxu bet ta harek ezetu gaittun ba, ezetu, pentseu ba eban ba nortzuk giñen. Holako estaziño txikitxu baten geratu giñen, ta hiru-hirurok geldik, ta etor zan morroe bet ta ez dosku ein ba ingles? ta guk inglesik murik bez. Ta barriek urten tson. Ta baia inglesen kristorik be ez geutsan aitzen, ezebe, ta gero ez zan hasi ba euskera? Bueno, gure pozkarridxe! Harexek erun gaittun gero beren etzera ta han ein genduzen egun bi, gero destiñue kañie ebateko, horrek kontratuek hartute euki [euskuezan], ta ba, kontratie ein ta ebei kañie, bueno! Apurtute eon zan. Zikloie eitten eban han sarri. Urtero-urtero bez, baia iguel hiru-lau urterik baten bai, ta kañek apurtu eitten ebazen, dana apurtute egon zan kañie be ordun... Heutze, zikiñe... Bueno! Dana bal-bal-baltz eindde juten giñen etzera ta egarridxe! Egarridxe, ure sano edaten da han, ure, beruaz.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ezkondu eta Australiara (NAB-001/002)

Ezkondu eta hilabete eta erdira Australiara joan zen: han kanabera ebakitzen hasi zen eta gero kamioia erosi eta garraioan aritu zen. Sei hilabete egiten zituen iparraldean, Queenslanden, eta sei Melbournen, barazkien haztegiatan. Hiru euskaldun ziren, eta besteak italiarrak ziren. Kanabera ebakitzea oso gogorra da. Diru apur bat irabazita, kamioia erosi zuen. Oso bero egoten zen; suge piloa ere bai.

2. Karobia eta txondorra (NAB-001/003)

Hiru lagun joan ziren. Euskal Herrian ez zen irabazten ezer, eta dirua egitera joan ziren hara. Hemen karea egiten zuten: hiru astean egoten zen sutan karobia. Txondorra ere egiten zuten: adar mehekin egiten zen orduan; zortzi egun inguru eduki behar zen egosten ondo estalita; zaindu egin behar izaten zen ez erretzeko. Gehienetan Gabikan saltzen zuen ikatza. Karea soroetan zabaltzeko saltzen zuten herrian. Astoa, mandoa eta gurdia erabiltzen ziren, ez traktorea.

3. Laiaketan (NAB-001/004)

Lehen dena eskuz egiten zen; orain traktorarekin. Laiekin eta golde txikiarekin lantzen zuten lurra. Lau behirekin eramaten zen golde handia, baina aldapa handidun lurrak zirenez eurenak, laiekin aritzen ziren. Hamabost urterekin hasi zen laiaketan.

4. Lan gogorra zen kanabara ebakitzea (NAB-001/005)

Australian lan gogorra egiten zuten; bost egunetan egiten zuten lan. Kanabera ebaki, trentxo batean errotara eraman, han apurtu eta azukrea egiten zen. Australian lehenagotik zeuden euskaldunen bitartez joan ziren hara.

5. Bidaia ordaintzeko lanean (NAB-001/007)

Lehenengo hiru hilabeteetako lana bidaia ordaintzeko izan zen. Garagardoa ordaintzeko dirurik ere ez zuten. Gero, hegoaldera joateko hegazkina ordaintzeko dirua aurrezten hasi ziren. Hegoaldean, zerrategi batean hasi ziren eta han istripua izan eta hiru hilabete eman zuen hanka sendatzen. Eta berriz dirua aurreztuta, iparraldera.

6. Letxero baserririk baserri (NAB-001/008)

Gernikan kubiartak jartzeko tailerra jarri zuen; baina bezero gutxi. Txofertza lana eskaini zioten. Lau urte ibili zen goizetik gauera lanean, asteko egun guztietan, Beyenarako esnea bildu eta pentsua banatzen baserririk baserri. Berrogei litroko kantinak kargatu behar ziren. Kanabera ebakitzea baino lan gogorragoa zen.

7. Laguntzaileak: listoa eta tontolapikoa (NAB-001/009)

Bi laguntzaile izan zituen. Lehenengoa Palentziatik etorritakoa; ederto ikasi zuen euskaraz eta apunteak ere hartzen zituen, laguntzaile ona izan zen. Bigarrenak, aldiz, ganorarik ez zuen, Nabarnizera trenean joango zela esan zion. Batzuetan lan ostean ehizan joaten zen Isaac. Egunero egin behar zen esne-bilketa.

8. Hamabi urtean eskutitzen bidez elkarren berri (NAB-001/010)

Baserrian diru gutxi irabazten zen. Euskal Herriko aldean asko irabazten zen Australian; zerga asko ordaindu behar zuen, eta kamioi berriak ere erosi zituen. Kamioiarekin lan asko egin behar zen, baina asko irabazten zuen. Espainiarren estatuan egon zen, koinata zen sukaldaria. Hamabi urtean egon zen etorri barik; ezkon berritan joan zen eta Isaacen etxean geratu zen emaztea gurasoak zaintzen. Kartaz komunikatzen ziren. Irunen despeditu zituen etxekoak, eta trena hartu zuen Genovara joateko itsasontzia hartzera. Treneko pasadizoa kontatzen du. Orduan Nabarnizen ez zegoen telebistarik; eta etxean telefonorik ere ez. Orduan ikusi zuen Frantzia lehenengo telebista.

9. Hemen jubilatuta, Australiara berriz lanera (NAB-001/011)

Goizetan fresko egoten zen eta gero bero Australiako iparraldean. Hegoaldean, aldiz, hemengo antzera. Ondo jaten zuten Espainiarren artean bizi zelako. Italiarrek eta, ez zuten hain ondo jaten. Hemen jubilatuta, hara joan zen hamasei hilabetea han lan egin eta hangoa kobratu ahal izateko. Hamasei hilabetea egon zen kanaberaren garaian hango arduraduna izan zen baten hotelean lanean.

10. Australiako janak ez dauka hemengoaren antzik (NAB-001/012)

Ingeles apur bat ikasita zuen, baina ahaztuta dauka. Hotelaren inguruan ez zegoen euskaldunik. Kanabera ebakitzen zuten soroetan euskaldunak eta italiarrak zeuden; horiekin ulertzea ez zen hain zaila. Hotela soroetatik 50-60 kilometrora zegoen; herri horretan dena ingelesez; euskaldun bakarra zegoen, eta harekin elkartzeko zen. Kafearen ordeztu beti edaten zen Australian. Jaten, hemengo antzik ere ez. Gabonetan, Australiako hotelean, ahate bat hil zuten eta haxe jan zuten. Hotelaren jabea eta semea etorri izan dira Nabarnizera; hemen ederto jaten dute.

11. Euskal Herriaren aldean oso aurreratuta zegoen Australia (NAB-001/013)

Atzerrira saltzen zen kanabera guztia. Mineral asko ateratzen dute Australian, eta trenetan garraiatzen dute. Australia hemengo aldean aurreratuta zegoen. Frantzia ikusi zuen lehenengo aldiz telebista. Hemen astoa eta mandoa zebiltzan bitartean, han traktoreak.

12. Gereziak Gabonetan Australian (NAB-001/014)

Bizkaiko euskaldun asko zegoen. Batzuk aberastuta zeuden, lehenago joandakoak. Gipuzkoarrak ere bazeuden. Etxeak dotoreak ziren, baina egurrez egindakoak ziren. Euri gutxi egiten du iparraldean; denbora argia eta beroa izaten da. Hemen esaten da "Gabonetan kerixakin pagaukotsut", eta han gereziak daude Gabonetan.

13. Txekea kartaz Nabarnizera (NAB-001/015)

Kanabera ebakitzen eta kamioiarekin kargatzen egiten zuten lan. Tomateak landatzeko eta batzeko ere makinak daude Australian. Tomate eta piper ona hartzen dute Australian; azalor kamioiak kargatzen zituzten. "Berdura farman" gutxi ordaintzen zieten; kanabera asko. Txekea bidaltzen zen kartaz, eta hemengo bankuetan kobratzen zen. Orain ere apurren bat kobratzen du. Dirua aurrezte aldera, ez zuten gasturik egin nahi, baina bulegokoak esan zien kamioi berria erosteko, bestela aurreztutakoa zergetan ordaindu beharko zutela.

14. Australian garagardo ona bai, baina janaria ez (NAB-001/016)

Hemengo aldean mozkor asko harrapatzen zen Australian. Garagardo ona egoten zen, eta tabernak goiz ixten zirenez, kolpean edaten zuten eta berehala mozkortzen ziren. Goserik ez zuten pasa; Isaac beti ostatuan espainiarrekin egon zenez, hemengo antzera jaten zuten, baina kanpora joanez gero jatera, oso bestelakoa zen janaria.

15. Eskoziako ezkontza batera joan zirenekoa (NAB-001/017)

Ezkontza batera joan ziren Eskoziara emaztea eta biak; hango ezkontzako bazkaria hemengo egunerokoa baino eskasagoa izan zen. Taxiak eta autobusak ederrak. Espainian Australiako aldean ondo jaten da, baina paraje ederrak daude han. Hegazkinean 35 ordu edo, behar dira Australiara joateko.

16. Sidney-n galduta (NAB-001/019)

Australiako lagunak autoa erosi zuen, eta 3000 km egin zituzten Melbournera joateko. Sartu ziren Sidneyra, eta galduta ibili ziren, hiritik irten ezinik. Hiria bera 60 km ingurukoa da. Sidney dotorea da.

17. Ganadua Bilboko hiltegira (NAB-001/021)

Ganadua neurtzeko kordela izaten zuen aita. Eta begira kalkulatzen zuten balioa. Anaia ere tratantea izandakoa da. Kamioia hamar-hamaika txalekin betetzen zutenean, hiltegian saltzen zitzairen harakinei. Gehienetan Bilbora eramaten zuten ganadua hiltegira.

18. Abere-hiltegiak (NAB-001/022)

Lehen Gernikan eta Bermeon ere egon ziren hiltegiak, baina gero Bilbora eraman behar ziren. Orain Bilbokoa eta Durangokoa ere itxi egingo dituzte.

19. Karobia nola prestatu (NAB-001/023)

Karobirako, lehenengo mukurrak ebakitzen dira; aita zuzentzen zuen lana eta semeek lagundu. Trontza zerrarekin ebakitzen ziren egur zaharrak. Harria eta egurra tartekatzen dira. Hiru ordutik hiru ordura edo betegarria bota behar zaio, suari eusteko, baina garra kanpora irten gabe. Zuloari adreilua jartzen zitzaion inguruan, berotasunak ez zezan ihes egin, eta gorri-gorri egiten ziren adreilu horiek. Ukabilaren neurriko harriak jartzen ziren. Harri egokia behar zen; harrobitik eramaten zuten. Erosi egiten zuten egurra, inguruko basoetakoa, batzuetan gaztainondoak izaten ziren. Aurretik prestatzen ziren egurra eta harria. Soroetarako saltzen zen karea, kintxaleko otzaretan. Artoa eta arbia ereiteko botatzen zen karea.

20. Gaztainak (NAB-001/024)

Ardien txabola izan zuten, baina berak ez du ezagutu ardirik han. Gaztaina piloa izaten zuten etxe ondoan. Gaztainak arantza eta guzti ekartzen ziren eta pilatuta edukitzen zituzten biguntzeko. Lakatza kendu eta danbolinean erretzen ziren. Ugazabak ez zien utzi tximinia kanpora ateratzen eta kez betetzen zen etxea sua egiten zuten bakoitzean.

21. Arto-zopak, taloa eta morokila (NAB-001/025)

Lehen ez zen kaferik gosaltzen, esne-zopak, arto-zopak, taloa eta morokila. Indabak jaten ziren egunero; arroza, garbantzuak eta horrelakoak erosi egin behar ziren, eta ez zegoen dirurik. Arrotzak plazan saltzen zituzten dirua irabazteko; txokolatea eta azukrea erosteko, esate baterako.

22. Gaztaina handiak eta asko egoten ziren (NAB-001/026)

Lakatza: gaztainaren kanpoko arantzadun eskola da. Gaztainekin piloa egin eta estalita izaten zituzten samurtzeko. Lehen denean egon ziren gaztainondoak, baina urte batean ia denak ihartu ziren.

23. Astea behin pizten zen labea (NAB-001/027)

Ogirik ez zen egoten antzina-antzina. Amak arto-zopak egiten zituen, baina Isaaci gustatu ez. Artoa eta tremesa egiten ziren labea; zortzi egunetik batean berotzen zen labea. Ia etxe guztietan egoten zen labea; laberik ez zuen etxeko mutikoaren pasadizoa kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com